



2019KO MARTXOAREN 25EAN BATZARRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2019ko martxoaren 25ean, 18:25tan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua
ABALTZISKETAKO UDALA (% 0,54): Kepa Gorostidi Garmendia
ALBIZTURKO UDALA (%0,53): M^a Isabel Matxinandiarena Arrospide
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Agirrezabala
ALKIZAKO UDALA (%0,61): Jon Umerez Urrezola
ALTZOKO UDALA (%0,65): Josu Astrain Azkona
AMEZKETAKO UDALA (%1,58): Iñaki Amundarain Tolosa
ASTEASUKO UDALA (%2,49): M^a Pilar Legarra Cortajarena
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala Ezkurdia
IRURAKO UDALA (%2,73): Jose Ramon Epelde Irizar
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasketa
LIZARTZAKO UDALA (%1,05): Leyre Gordo Castro
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Jose M^a Luego Zapirain

ETORRI EZ DIRENAK:

BALIARRAINGO UDALA (%0,21): Martzelino Dorronsoro Galarraga
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42): Silvia Moneo Cid
ELDUAINGO UDALA (%0,39): Miren Amaia Askasibar Agirre
HERNIALDEKO UDALA (%0,57): Miren Karmele Pellejero Galarraga
LEABURUKO UDALA (%0,61): Itziar Zubelzu Urbietta
ORENDAINGO UDALA (%0,32): Gorka Egia Arregi
VILLABONAKO UDALA (%9,61): Maite Izagirre Irazustabarrena

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

1. 2018ko urriaren 29ko Batzarraren Akta onartzea.

2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20181029.026tik LE20190226.006ra.

3. 2019 ekitaldirako Idazkari eta Kontuhartzaileen izendapena, lanpostuak behin betiko izaeraz hornitu bitartean.

- 4. 2019 ekitaldirako aurrekontua eta bera gauzatzeko araua hasiera batez onartzeko proposamena. 2019 ekitaldirako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.**
- 5. Aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak finkatutako helburuen betetzearen berri ematea.**
- 6. Kontratazio prozedura: Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan etxeko olio erabilia eta hondakin arriskutsuak gaika bildu eta garraiatu, jasotako olio prozesatu, olioaren edukiontzien eta hondakin arriskutsuen etxolen garbiketa eta mantentze lanak kontratatzeko Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboen onespenez proposamena.**
- 7. 2018ko urriaren 29an hasierako onarpena emandako Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutoen aldaketa prozedurari atzera egitea onartzea.**
- 8. Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutoen aldaketa proposamen berriari hasierako onarpena ematea eta erakusketa publikoan jartzea onartzea.**
- 9. 2018an eskualdean sortutako Hiri Hondakinen kudeaketaren balantzearen berri ematea.**
- 10. Karakterizazioak: errefusa eta organikoaren karakterizazioen berri ematea herriz herri.**
- 11. Bestelako berri ematea: UTE TOLOSALDEArekin izenpetutako hondakinen bilketa eta garraio zerbitzuaren ezarpen maila.**
- 12. Mankomunitateko langileen ordainsarien igoseraren onarpena (2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginkortasunarekin).**
- 13. Galde-erreguak.**

Mankomunitateko Idazkari den Leire Arteaga Zumetak ematen dio fede ekintzari.

Lehendakariak Anoeta, Gaztelu, Ikaztegieta eta Orexako ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuetakako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ANOETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

GAZTELUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

IKAZTEGIETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

OREXAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2018ko urriaren 29ko Batzarraren Akta onartzea.

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20181029.026tik LE20190226.006ra.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

LE20181029.026
LE20181111.027
LE20181112.028
LE20181121.029
LE20181123.030
LE20181127.031
LE20181210.032
LE20181211.033
LE20181218.034
LE20181226.035
LE20181231.036
LE20190125.001
LE20190208.002
LE20190208.003
LE20190208.004
LE20190214.005
LE20190226.006

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

3.2019 ekitaldirako Idazkari eta Kontuhartzaileen izendapena, lanpostuak behin betiko izaeraz hornitu bitartean.

Idazkaria eta kontuhartzailea aretotik ateratzen dira.

Lehendakariak batzarkideei jakitera ematen die Idazkari eta Kontuhartzaileen karguak urtero berritzen direla, lanpostuak behin betiko izaeraz hornitu bitartean. Honen gainean, esan behar da iaz onartu zela mankomunitate honekin eta Tolosako Hiltegi Mankomunitatearekin batera udal elkarte osatzea, bien artean Idazkari-Kontu hartzaile lanpostua mantentzeko. Espedientea jendaurrean egon ondoren, ez dira alegaziorik jaso, beraz, prozedurak aurrera jarraitzen du. Hurrengo pausoa da Eusko Jaurlaritzari eskatzea lanpostuaren sorrera eta sailkapena egitea. Ondoren, Foru Aldundiari eskatu beharko zaio lanpostua betetzea.

Beraz, Idazkari-Kontuhartzaile plaza finkoa sortu bitartean, proposatzen da lanpostu hauek behin behineko izaeraz hornitzea, orain arte bezala.

2018 urtean izendatutako langileei proposatu zaie karguan jarraitzea, hau da, Adunako

Idazkaria eta Villabonako Kontuhartzaileari, biek onartu dutelarik, beti ere, lanpostu hau era finkoan bete arteko prozedurak aurrera jarraitzen badu.

2019 ekitaldiko aurrekontuan Idazkari eta Kontuhartzaile gastua jasotzen da, 227.11.162.20 2019 partidan, 23.260,00 € ko diru kopuruarekin. Gastu hauek Aduna eta Villabonako Udaleei ordainduko zaizkie, erdibanatuz bien artean.

Gaia aztertu ondoren, Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Leire Arteaga Zumeta, Adunako udaleko Idazkaria, Tolosaldeko Mankomunitateko Idazkaria izendatzea 2019 urterako.

BIGARRENA.- Maider Amado Mendizabal, Villabonako Udaleko Kontuhartzailea, Tolosaldeko Mankomunitateko Kontuhartzaile izendatzea 2019 urterako.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

4. 2019 ekitaldirako aurrekontua eta bera gauzatzeko araua hasiera batez onartzeko proposamena. 2019 ekitaldirako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.

Kontuhartzaileak hitza hartu du lehenengoz, adierazteko 2019ko aurrekontua %3,36an gutxitu dela 2018arekiko, iaz hondakinen bilketa eta garraioaren kontratua berriro zelako eta aurtengorako ez delako inbertsio berririk espero, ekipo informatikoetan ezezik. Beraz, partidaz partida doitu dira kopuruak.

Sarrerei dagokionez, %11ko jaitsiera aurreikusten da, papera/kartoiaren prezioa gutxitu delako.

Aurrekontuaren gastuak eta sarrerak orekatuak agertzen dira. Ondorengo taulan jasotzen dira 2019 urtekoak:

SARRERAK		
<u>Kapitulua</u>	<u>Izena</u>	<u>Euroak</u>
III	Tasak eta bestelako zergak	1.155.600,00
IV	Transferentzia arruntak	4.697.850,60
V	Ondare sarrerak	400,00
Guztira Sarrerak		5.853.850,60
GASTUAK		
<u>Kapitulua</u>	<u>Izena</u>	<u>Euroak</u>
I	Pertsonal gastuak	132.850,00
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	5.716.400,60
III	Finantza gastuak	100,00
IV	Transferentzia arruntak	0,00
VI	Inbertsio errealak	4.500,00
Guztira Gastuak		5.853.850,60

Jarraian, teknikariak hitza hartu du udalen ekarpenak azaltzeko asmoz. Ekarpenak 3 zatitan banaturik daude:

1. Gastu estrukturalak (zati finkoa): biztanleen arabera kalkulatu eta banatzen dira udalerrietan.
2. Bilketa gastuak (zati aldakorra): herri bakoitzean dagoen bilketa sistemaren arabera banatzen dira bilketa eta garraioko kontratuaren prezioa.
3. Tratamendu gastua (zati aldakorra): gaur egun estimazioen arabera kalkulatu da, baina maiatzetik aurrera, kamioi berriei esker, pisaketa errealak izatea espero da.

18:37tan Andoaingo ordezkaria den Ana Carrere Zabala bertaratzen da.

Ondoren, bilketa gastua (2. puntua) nola banatzen den herrietan azaltzen da:

- Edukiontzia dituzten herrietan: altxaldi kopuruaren arabera.
- Atez ateko herrietan: denboraren arabera. Kontratu berrian, gastu hau handitu egin da, bi langile behar direlako (gidaria eta peoia).
- Bolseoa eta komertzioetako kartoia: denboraren arabera.
- Traste zaharrak: bilketa puntu eta maiztasunaren arabera.
- Industrieguneak: banatutako edukiontzi kopuruaren arabera.
- Azokak: asteroko azoka kopuruaren arabera.
- Pilak: biztanle kopuruaren arabera.

Kontutan hartu behar da bilketa eta garraio kontratua lau urterako luzatuko dela, bi urte gehiago luzapenarekin, eta denbora guzti honetan ez dela prezioan aldaketarik izango, hau da, mantendu egingo dela. Beraz, herri batek neurriak hartzen baditu bere ekarpena jaisteko, adibidez, altxaldi kopurua gutxituz, jaitsiera hori gainerako herriek bere gain hartu beharko dute, prezioa mantentzeko. Edozein kasutan, prezioen gorabeherak ez dira aurreikusten handiak izatea, baldin eta ez badago aldaketa garrantzitsurik.

Tolosako ordezkariaren ustez ez da oso logikoa planteamendu hori, prezio unitarioak igotzen badira bai, ez delako igoera hori ekarpenetara trasladatzen, baina prezioak gutxituz gero gaizki, ez delako onura hori aprobetxatzen.

Teknikariak erantzun du adibide hauek jarritz: herri batek edukiontzi gehiago eskatzen baditu, edo industriegunetan edukiontzi gehiago behar badira, enpresa kontratistak bere gain hartu beharko ditu kostu horiek, herrietan eraginik izan gabe.

Lehendakariak adierazi du banaketa guztiak ez direla inoiz perfektuak, baina mankomunitate honetan objetibitate maila %90 inguruan dagoela. Teknikariak gaineratzen du oso zailak direla aldaketak banatzea herrien artean, kalkulu konplexuak direlako, baina ahaleginak egingo direla, gertatzen badira, ahal den egokien kalkulatu eta banatzeko.

Ondorengo taulan ikusten dira 2019ko udalen ekarpenak herriz herri banaturik:

HERRIA	BIZTANLEAK (ine 01/01/2018)	EKARPEN FINKOA				GUZTIRA EKARPEN FINKOA
		GASTU ESTRUKTURALAK (KUDEAKETA GASTUA)	BILKETA GASTUAK		TRATAMENTU GASTUAK	
			BIZTANLEAREN ARABERAKOA		BIZTANLEAREN ARABERAKOA	
ABALTZISKETA	320	2.445	9.091	1.066	604	13.207
ADUNA	469	3.583	57.793	1.563	886	63.824
ALBIZTUR	309	2.361	9.002	1.030	584	12.976
ALEGIA	1.726	13.185	167.867	5.751	3.260	190.064
ALKIZA	374	2.857	9.943	1.246	706	14.753
ALTZO	427	3.262	18.481	1.423	807	23.973
AMEZKETA	939	7.173	18.183	3.129	1.774	30.259
ANDOAIN	14.618	111.671	766.149	48.709	27.614	954.143
ANOETA	2.034	15.538	143.652	6.778	3.842	169.810
ASTEASU	1.533	11.711	106.382	5.108	2.896	126.097
BALIARRAIN	137	1.047	5.564	457	259	7.326
BELAUNTZA	239	1.826	6.435	796	451	9.508
BERASTEGI	1.081	8.258	19.155	3.602	2.042	33.057
BERROBI	602	4.599	11.264	2.006	1.137	19.006
ELDUAIN	239	1.826	5.573	796	451	8.647
GAZTELU	153	1.169	4.487	510	289	6.455
HERNIALDE	313	2.391	9.762	1.043	591	13.787
IBARRA	4.172	31.871	278.868	13.902	7.881	332.522
IKAZTEGIETA	488	3.728	77.472	1.626	922	83.748
IRURA	1.862	14.224	153.773	6.204	3.517	177.719
LARRAUL	253	1.933	6.667	843	478	9.921
LEABURU	377	2.880	23.024	1.256	712	27.872
LIZARTZA	602	4.599	19.864	2.006	1.137	27.606
ORENDAIN	218	1.665	4.770	726	412	7.574
OREXA	123	940	5.162	410	232	6.744
TOLOSA	19.525	149.157	869.234	65.060	36.883	1.120.334
VILLABONA	5.881	44.927	257.704	19.596	11.109	333.337
ZIZURKIL	2.976	22.735	210.309	9.916	5.622	248.581
TOLOSALDEA	61.990	473.560	3.275.631	206.560	117.100	4.072.851

Ondoren, agertutako guztiek ados daudenez aurkeztutako espedientearekin eta emandako azalpenekin, Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitateko 2019. ekitaldirako aurrekontu espediente eta dokumentu osagarriak hasiera batez onartzea.

BIGARRENA.- Tolosaldeko Mankomunitateko 2019. ekitaldirako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda hasiera batez onartzea.

HIRUGARRENA.- Tolosaldeko Mankomunitateko 2019. ekitaldirako udalen ekarpenak egiteko araua, egutegia eta udalen ekarpen sistema hasiera batez onartzea.

LAUGARRENA.- Aurrekontua, plantilla organikoa, lanpostuen zerrenda, udalen ekarpenak egiteko araua, egutegia eta sistema hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Tolosaldeko Mankomunitateko iragarki taulan ipiniko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, Aurrekontua behin-betiko onartua kontsideratuko litzateke, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

5. Aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak finkatutako helburuen betetzearen berri ematea.

Kontuhartzaileak azalpenak eman ditu, Foru Aldundiak horrela eskatuta, nahiz eta 2017 eta 2018ko aurrekontu eta likidazio espedienteetan jasota egon.

Mankomunitateko Fondoan Kontuhartzaileak, Gipuzkoako Toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorrean finantza tutoretzaren eskumena garatzen duen otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauko 5.3 artikulua xedatzekoa betez, Batzarrari jakinarazten dio Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak finkatutako helburuetan ez direla bete honakoak ondorengo espedienteetan:

HELBURUAK	Iraunkortasuna	Zor publikoa	Gastuaren erregela
2017ko LIKIDAZIOA	Betetzen da	Betetzen da	Ez da betetzen
2019ko AURREKONTUA	Betetzen da	Betetzen da	Betetzen da
2018ko LIKIDAZIO	Betetzen da	Betetzen da	Betetzen da

Gastuaren erregela ez betetzea altxortegiko gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu da.

Altxortegiko gerakina denboran errepikatuko ez den gasturako erabili izan da, beraz, Mankomunitatearen finantza iraunkortasuna bermatua dagoela ulertzen da.

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

6. Kontratazio prozedura: Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan etxeko olio erabilia eta hondakin arriskutsuak gaika bildu eta garraiatu, jasotako olioaren prozesatu, olioaren edukiontzien eta hondakin arriskutsuen etxolen garbiketa eta mantentze lanak kontratatzeke Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboaren onespenez proposamena.

Teknikariak hitza hartu du azaltzeko kontratazio honen ezaugarriak: aurreko kontratua agorturik dagoenez eta berri behar denez, Baldintza Plegu Tekniko eta Administratiboak aurkeztu dira batzarkideei. Kontratu berriaren iraupena 2 urtekoa izango da, 3 urteko luzapena izan dezakeelarik. Beraz, iraupen osoa 5 urtetakoa izango da.

Kontratuaren kopurua 39.600 € (BEZa barne) gehienez izango da.

Kontratuaren lizitazio eta izapideak lizitazio elektronikoaren euskarriaren bidez egingo dira, eta presazkoa denez, Batzarrari eskatzen zaio Lehendakaritzari eskuordetzea.

Berrobiko ordezkariak galdetu du zein ontzi mota erabili daitekeen olio botatzeko. Teknikariak erantzun dio edozein motatakoa izan daitekeela (kristala, plastikoa...), edukiontzi horiek kubeta estanko bat dutelako eta botatuko ontziak ez direlako kontuan hartzen.

Dokumentazio guztia aztertuta, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan etxeko olio erabilia eta hondakin arriskutsuak gaika bildu eta garraiatu, jasotako olioaren prozesatu, olioaren edukiontzien eta hondakin arriskutsuen etxolen garbiketa eta mantentze lanen kontratazio espedientea onartzea, prozedura irekiaz, eskaintza ekonomiko abantailatsuenaz eta zenbait adjudikazio irizpide bidez, bere lizitaziora dei eginez.

BIGARRENA.- Aipatutako kontratazioak Mankomunitate honi suposatzen dion gastua baimentzea, 36.000,00 eurokoa gehi BEZari dagokion 3.600,00 euro delarik, 2019 ekitaldirako Mankomunitate honen gastu egoerako 1.0000.227.26.162.10 eta 1.0000.227.27.162.10 partiden kontura.

HIRUGARRENA.- Tolosaldeko Mankomunitatearen esparruan etxeko olio erabilia eta hondakin arriskutsuak gaika bildu eta garraiatu, jasotako olioaren prozesatu, olioaren edukiontzien eta hondakin arriskutsuen etxolen garbiketa eta mantentze lanen kontratazio

espedientea, prozedura irekiaz, eskaintza ekonomiko abantailatsuenaz eta zenbait adjudikazio irizpide bidez, arautzen duten Baldintza Administratibo Partikularreko eta Teknikoko Pleguak onartzea.

LAUGARRENA.- Kontratugile Profilan lizitazio-iragarkia argitaratzea, interesdunek egoki iruditzen zaizkien proposamenak aurkez ditzaten, Euskadiko Lizitazio Elektronikoaren Plataformaren bidez.

BOSTGARRENA.- Mankomunitateko Lehendakaria ahalmentzea, kontratazio espedienteari dagozkion hurrengo akordioetan erabakiak hartzeko.

7. 2018ko urriaren 29an hasierako onarpena emandako Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutoen aldaketa prozedurari atzera egitea onartzea.

Lehendakariak hitza hartu du gogorazteko 2018ko urriaren 29an Batzarrak, aho batez, hasierako onarpena eman ziola Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutoen aldaketaren prozedurari. Ondoren, jendaurreko epean, udal batzuk zenbait alegazio aurkeztu zituzten (Abaltzisketa, Altzo eta Tolosa), batez ere objektuaren aldaketaren gainean. Onartzen du agian gai gehiegi sartu zirela puntu honetan, eta ikusirik sortu den polemika, proposatu du aipatutako aldaketa hau bertan behera uztea eta hurrengo puntuan jasota dagoen proiektu berria eztabaidatzea.

Alkiza ordezkariak iragarri du bera abstenitu egingo dela, prozeduran erabilitako formak ez zaizkiolako egokiak iruditzen.

Abaltzisketako ordezkariak beste horrenbeste adierazi du, gaineratuz hurrengo puntuan ere abstenituko dela.

Ondoren, bozketari ekin zaio, emaitza honakoa izan delarik:

Batzarrera bertaratutako udalerri eta botoak		ALDE		KONTRA		ABSTENTZIO	
Udalerriak	% botoak	Udalerriak	% botoak	Udalerriak	%botoak	Udalerriak	%botoak
Abaltzisketa	%0,54					Abaltzisketa	%0,54
Aduna	% 0,77	Aduna	% 0,77				
Albiztur	% 0,53	Albiztur	% 0,53				
Alegia	% 2,85	Alegia	% 2,85				
Alkiza	% 0,61					Alkiza	% 0,61
Altzo	% 0,65	Altzo	% 0,65				
Andoain	% 23,92	Andoain	% 23,92				
Amezketeta	% 1,58	Amezketeta	% 1,58				
Anoeta	% 3,09	Anoeta	% 3,09				
Asteasu	%2,49	Asteasu	%2,49				
Berastegi	% 1,72	Berastegi	% 1,72				
Berrobi	% 0,93	Berrobi	% 0,93				
Gaztelu	% 0,28	Gaztelu	% 0,28				
Ibarra	% 6,95	Ibarra	% 6,95				
Ikaztegieta	% 0,76	Ikaztegieta	% 0,76				
Irura	% 2,73	Irura	% 2,73				
Larraul	% 0,42	Larraul	% 0,42				
Lizartza	% 1,05	Lizartza	% 1,05				
Orexa	% 0,20	Orexa	% 0,20				
Tolosa	% 30,91	Tolosa	% 30,91				
Zizurkil	% 4,89	Zizurkil	% 4,89				
21 udalerri	% 87,87	19 udalerri	% 86,72			2 udalerri	% 1,15

Beraz, Batzarrak,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2018ko urriaren 28an hasiera batez onartutako (2018ko azaroaren 7ko GAO 214 zkia) Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuak aldatzeko proiektuaren prozedurarekin atzera egitea, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Arruntari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 93. Artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo arrazoiengatik:

- Erakusketa publikoko epean Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten zenbait udalek aurkeztutako alegazioak aztertu ostean, estatutuak behin betikoz onartzea ez delako posible izango.

BIGARRENA.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

8. Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutuen aldaketa proposamen berriari hasierako onarpena ematea eta erakusketa publikoan jartzea onartzea.

Lehendakariak hartu du hitza azalduz, gai honen inguruan, lan bilera ugari egin direla, estatutuen aldaketak ahalik eta adostasun gehien izateko. Horren harira, bai eskualdeko idazkari-kontuhartzaile eta baita gizarte langileekin ere bildu dira udal ordezkariak.

Estatutuak aldatzeko beharra ondorengo puntuetan arrazoitzen da:

1- Eguneratzea: 1997 urtean onartu ziren mankomunitatearen estatutoak, eta ez dituzte betetzen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren zenbait artikulua.

2- Ekarpen sistemaren aldaketa: 2007 urtean egindako estatutoen aldaketan, erabaki zen herrien biztanle kopuruaren arabera egitea aportazioak, ordurarte indarrean zegoen zerbitzuen erabilpenaren arabera kenduz. 2014 urtean, Batzarrak erabaki zuen ekarpenen sistema aldatzea, zerbitzuaren arabera egitera pasatuz, gastu orokorrak eta zehatzak banatuz. Beraz, estatutuek ez dute aldaketa hau isladatzen.

3- Estatutuen aldaketa prozedura eta horretarako beharrezkoa den gehiengoa aldatzea: egun indarrean dauden estatutuen arabera, funtzesko aldaketak onartzeko eskatzen da Mankomunitatea osatzen duten herri guztien udalbatzarren onarpena. Gai hau aldatu eta 6/2007 foru arauaren 11. artikulua jartzen duenagatik ordezkatzeko proposatzen da, hau da, Mankomunitateko udalen gehiengoak onartzea, udal guztien ordezkariak.

4- Gehiengoaren sistema argitzea, akordioak hartzeko garaian: zenbait kasutan euskara eta gaztelerako bertsioen artean ezberdintasunak daude eta gehiengoaren erredakzioa ulergarriagoa egitea da helburua.

Lehendakariak gaineratu du, Tolosako Udalaren iritziaren zain egon direla, baina ez dutenez erantzun eta ezin zenez gehiago itxaron, Batzarrari dei egitea erabaki dela.

Kontuhartzaileak azaldu duenez, mankomunitateak zerbitzu berri bat eskeiniko balu, inolaz ere ez luke ondorioz izango bere egitura, zerbitzu bakoitzeko dagozkion partidak bereizten direlako, remanentea ere. Gaineratu du, nahiz eta udal batek oniritzia eman estatutuen aldaketari, horrek ez duela derrigortzen udalari nahi ez dituen zerbitzuak ordaintzera.

Tolosako ordezkariaren ustez, zerbitzu gehiago eskaintzeak aldaketak ekarriko lituzke egitura, beraz gastuak ere handituko lirateke. Gaineratu du agian gerente baten figura ere beharrezkoa litzatekela, udal guztiek ordaindu beharko luketena.

Abaltzisketako ordezkariaren iritziz, azkeneko urtetan egitura gastuak igo egin dira, eta beraiek nahikoa lan dute zaborrak ordaintzeko, beraz, ez dituzte nahi zerbitzu gehiago.

Teknikariak erantzun dio ez direla egitura gastuak igo, beste gastu mota baizik, horien artean nabarmenduz tratamendu gastuak.

Andoaingo ordezkariak parte hartu du esanez beraiek bakarrik zabor zerbitzuan parte hartuko dutela, baina gainontzeko herriei ez dietela oztoporik jarriko zerbitzu berriak nahi badituzte ezarri.

Idazkariak esan du, kasu honetan, Andoainek bezalako iritzia duten udalerriei bermatu behar zaiela bakarrik ordainduko dutela zabor zerbitzuagatik.

Alegiako ordezkariaren ustez, fede onarekin eta gardentasunarekin egin da prozesu guztia. Lehendakariak gaineratu du prozesu luzea izan dela, bi urte ingurukoa, bileretan gaiak aho batez onartu direlarik. Beraz, ez du ulertzen oraindik oztupoak jartzea.

Tolosako ordezkariak azaldu du bere kontuhartzaileak ez duela oraindik iritzirik eman proiektu honi, eta ondorioz, kontrako botoa emango duela.

Andoain eta Berastegiko ordezkariak ez dute ulertzen Tolosakoaren jarrera.

Lehendakariak azaldu du Tolosako alkatearen iritziaren zain dagoela duela hilabete t´erditik, erantzunik jaso gabe, eta errespetu falta izugarria iruditzen zaiola.

Alkizako ordezkariak Tolosakoari leporatu dio, Mankomunitateko lehendakariordea izanik, arrazoiak mahai gainean ez jartzea. Adibide moduan jartzen du lehen aipatu duen gerentearen figura, Tolosako ordezkariak esan duelako posible dela beharrezkoa izatea, baina arrazoiak eman gabe. Gaineratzen du Abaltzisketako Udalaren beldurra ulergarria iruditzen zaiola, udal txikia izanik ez dituztelako nahikoa errekurtsio, baina Tolosakoaren kontrako jarrera guztiz ulertezina iruditzen zaio.

Asteasuko ordezkariak parte hartu du eztabaidan, bere kasua azaleratuz: bere udaleko kontuhartzaileak ez ditu txostenak eta proiektua irakurri, baina bera ordezkari gisa bozkatuko du, bere iritziaren arabera. Ondoren, kontuhartzaileak eman beharko du, ala ez, gai honen inguruko txostena.

Tolosako ordezkariak berretsi du ez duela proiektua garbi ikusten, eta bere kontuhartzailearen oniritzirik gabe ez duela alde bozkatuko.

Idazkariak Tolosako ordezkariari gogorarazi dio lehenengo aldaketa proiektuan leporatu izana txostenik ez zeudela espedientean. Oraingo proposamenean hiru txosten egonik, esatea bere kontuhartzaileari ez diola denborik eman ikusteko arrazoi eskasa iruditzen zaio.

Azkenik, Alkizako ordezkariak dio lege orokorrak babesten dituela aldaketa hauek. Lehendakariak gaineratzen du gauza bera egiten duela jurisprudentziak.

Ondoren, bozketari ekin zaio, emaitza honakoa izan delarik:

Batzarrera bertaratutako udalerrri eta botoak		ALDE		KONTRA		ABSTENTZIO	
Udalerrriak	% botoak	Udalerrriak	% botoak	Udalerrriak	%botoak	Udalerrriak	%botoak
Abaltzisketa	%0,54					Abaltzisketa	%0,54
Aduna	% 0,77	Aduna	% 0,77				
Albiztur	% 0,53	Albiztur	% 0,53				
Alegia	% 2,85	Alegia	% 2,85				
Alkiza	% 0,61	Alkiza	% 0,61				
Altzo	% 0,65	Altzo	% 0,65				
Andoain	% 23,92	Andoain	% 23,92				
Amezqueta	% 1,58	Amezqueta	% 1,58				
Anoeta	% 3,09	Anoeta	% 3,09				
Asteasu	%2,49	Asteasu	%2,49				
Berastegi	% 1,72	Berastegi	% 1,72				
Berrobi	% 0,93	Berrobi	% 0,93				
Gaztelu	% 0,28	Gaztelu	% 0,28				
Ibarra	% 6,95	Ibarra	% 6,95				
Ikaztegieta	% 0,76	Ikaztegieta	% 0,76				
Irura	% 2,73			Irura	% 2,73		
Larraul	% 0,42	Larraul	% 0,42				
Lizartza	% 1,05	Lizartza	% 1,05				
Orexa	% 0,20	Orexa	% 0,20				
Tolosa	% 30,91			Tolosa	% 30,91		
Zizurkil	% 4,89	Zizurkil	% 4,89				
21 udalerrri	% 87,87	19 udalerrri	% 53,69	2 udalerrri	%33,64	1 udalerrri	% 0,54

Beraz, guztia azterturik, Batzarrak, gehiengo soilez eta gainera gehiengo soil horrek, gutxienez mankomunitateko udalen gehiengoa ordezkatuz,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitateko estatutoak aldatzeko proiektua hasieraz onartzea.

BIGARRENA.- Estatutoen aldaketarako proiektua jendaurrean jartzea hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako udaletxeetako iragarki oholetan argitaratuz, interesdunek hura aztertu eta alegazioak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA.- Horren ondoren, estatutuen aldaketa Foru Aldundiaren iritzira makurtuko da hilabete batez, epe hori iragaten bada iritzirik eman gabe aldekotzat hartuko da.

LAUGARRENA.- Erakusketa publikoko epean aurkeztutako alegazioak eta Foru Aldundiaren txostenak egindako proposamenak aztertu eta onartu ostean, Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalei mankomunitateko estatutuen proiektua onartzea eskatzea, Mankomunitatea eratzeko eskatutako quorum-arekin onartutako udal batzarraren erabakiaren bidez.

9. 2018an eskualdean sortutako Hiri Hondakinen kudeaketaren balantzearen berri ematea.

Teknikariak aurkeztu ditu gai honi loturik dauden bilketa datuen grafikoak, bilketa sistemaren arabera sailkatuta. Puntu hauek nabarmendu ditu:

1- Errefusa: kopurua jaitsi egin da eskualde mailan, 2013. urtetik 2018ra, bai etxebizitza eta baita komertzioetan ere. Albiste ona da, kontuan harturik zatiki garestiena dela tratatzeko garaian.

2- Gaikako bilketa: ontzi arinak %6an igo dira, 2017 urtearekin alderatuta.

3- Garbigune zein industrigunetan: datuak mantendu egin dira.

4- Landa eremua: hemen ere errefusa kopurua jaitsi egin da, %21 inguruan. Aldiz, antzeko prortzentajeetan igo da gaikako bilketa.

5- Irura: udalerrri honetan, aldiz, errefusaren kopurua %16an igo da, gaikako bilketa %7an jaitsi delarik.

Beraz, ondorioztatu daiteke orokorrean 2017tik 2018ra ez direla egon aldaketa handirik.

Azkenik, 2019. urteko lehenengo bi hilabetei dagokionez, bi udalerrri nabarmendu nahi dira:

1- Andoain: egin diren aldaketen ondorioz, gaikako bilketa dezente igo da, %44tik %56ra

2-.Asteasu: udalerrri honetan orain ezartzen ari dira aldaketa batzuk, beraz, maiatzetik aurrera aurreikusten da datuetan islada izatea.

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

10. Karakterizazioak: errefusa eta organikoaren karakterizazioen berri ematea herriz herri.

Teknikariak hitza hartu du azalduz 2018ko azken hiruhilabetea eta 2019ko lehenengo bi hilabetetetan, organiko eta errefusaren karakterizazioak egin direla eskualdeko herri guztietan. Hauek dira emaitzak, laburbilduz:

1- Landa eremuan: zenbait udalerritan %30 inguruko materia organikoa topatu da errefusan. Beraz, neurriak hartzea komenigarria litzateke, beti ere udalerriekin elkarlanean. Neurri horien artean, bi hauek aipatzen dira:

- Autokonpostajearen ezarpena handitzea.
- Organikoaren bilketa: 2019ko aurrekontuetan, landa eremuan organikoaren bilketa jasota dago. Gainera, bilketa eta garraio zerbitzuaren kontratistak (UTE Tolosaldea) behartuta dago zerbitzu hau ematera, mankomunitateari inongo kosturik suposatu gabe.

Teknikariak gaineratu du bera ez dela edukiontzi organikoa irekita uztearen aldekoa, baina puntu hau hitzegin daitekeela herriekin.

2- Herri handitan: azaltzen diren inpropioen kopuruak ez dira hain kezkarriak, gaikako bilketa handia delako. Edozein kasutan, beti dago tartea emaitzak hobetzeko. Jarraian, datu zehatzagoak ematen dira:

- Edukiontzi bidezko bilketa eta sortzaile bereziak: emaitza onak lortu dira.
- Andoingo edukiontzi organikoa: borondatezkoa denez, emaitza onak lortu dira.
- Irura-Zizurkil: inpropio kopuru handiena atera dute, %5-a pasata.
- Tolosa eta Ibarra: emaitza nahikoa onak izan dira, Ibarra batez ere. Tolosan egin berri den kanpainak datuak hobetzea ekarri du.
- Villabona: emaitzak mantendu egin dira.

Kalitatezko bilketa egitea kopurua baino garrantzitsuagoa dela esan du teknikariak. Atez ateko bilketa egiten den herrietan emaitzak oso onak dira, Alegian errefusaren kopurua 1,94 izan da, Ikaztegietan 1,28, Anoetan 1,61. Ibarra sortzaile berezietan 0,70.

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

11. Bestelako berri ematea: UTE TOLOSALDEArekin izenpetutako hondakinen bilketa eta garraio zerbitzuaren ezarpen maila.

Teknikariak jakinarazi du hondakinen bilketa eta garraio zerbitzuaren kontratu berriaren ezarpena nola doan. Enpresa inbertsioak egiten ari da, albo karga jarri du, atzeko kargakoak

ere iritsi dira. Kamioiak dira denbora gehien atzeratzen ari direnak. Maiatzaren amaierarako denak egongo dira. Edukiontzien mantenua eta garbiketa egiteko furgona eskatu zitzaien, hori apirilaren erdialdean egongo da.

Basea Alegian proposatu zuten eta han daude, beste zerbitzuak hasieratik jarri ziren.

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

12. Mankomunitateko langileen ordainsarien igoeraren onarpena (2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginkortasunarekin).

24/2018 Errege Lege-Dekretuaren 3.Bi artikuluan hau dago xedatuta:

-2019. urtean, sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariak oro har ezingo dira igo 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko ehuneko 2,25 baino gehiago, alderatutako bi epealdietarako homogeneotasunari lotuta, bai langileei euren dagokionez, eta bai langilearen antzinasunari dagokionez ere; horretarako, ez dira kontuan hartuko gizarte-ekintzarako gastuak, zeinak, orokorrean 2019an ezingo baitira izan 2018ko gastuak baino handiagoak. Horren inguruan, gizarte-ekintza arloko gastuak irabaziak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, egindako lanagatik jasotako lansariekiko desberdinak, orobat; lansarien helburua aipatutako sektore publikoaren zerbitzurako langilearen inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako premia jakin batzuk asetzea da.

Beraz, hau guztia kontuan harturik, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatutako 3. Bi artikuluko lehenengo paragrafoaren inguruan, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Tolosaldeko Mankomunitateko langileen ordainsariak legez onartzen den gehienekora igotzea, hau da, 2018ko abenduaren 31an indarrean zeuden ordainsariekiko %2,25.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri langileei jakinaraztea.

13. Galde-erreguak.

Lehendakariak eskatu die Mankomunitateko ordezkariari, estatutuen aldaketaren gaia datorren legealdira luzatuko denez, nahiz eta ordezkari berriekin lanketa egin beharko den, uzten duten ordezkariak informazioa emateko datozenei.

Teknikariak esan du aurreko Batzarrean onartutako gida egiteko denborarik ez duela izan eta kontuan izanda legealdia amaitzeaz dagoela eta legealdi berrian aldaketak egon daitez-

kela, gida egin eta banatu beharrea web orrian fitxa batzuk jarri daitezkeela aldagarriak direnak, informazioarekin. Fitxa horiek eskatzen duenari eman ahal izango zaizkio eta web orrian eskuragarri egongo dira nahi duenarentzat. Beraz, teknikariak proposatzen du gidarena ahaztu eta beste modelo batekin betetzea helburu bera.

Eta bileraren helburua beteta, gaueko hogeit hamar orduak eta hogeit hamar minutu direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARI